

# ARRARIK ARRA

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 32 or. 15 €.

CALDECOTT OHOREZKO DOMINA (1961)  
NEW YORK TIMES SARIA ILUSTRATURIKO LIBURU ONENARI

**Arrarik arra** (euskaraz)

ISBN 978-84-9172-043-0. Gaur egungo klasikoak.

**Paso a paso** (gaztelaniaz)

ISBN 978-84-8464-379-1. Clásicos contemporáneos.

**Paso a paso** (galegoz)

ISBN 978-84-8464-378-4. Tras os montes.

**Pam a pam** (katalanez)

ISBN 978-84-16804-48-1. Clàssics contemporanis.

**Pé ante pé** (portugesez)

ISBN 978-989-749-101-6. Clássicos contemporâneos.

*Egun batean, txantxangorri gose batek har bat ikusi zuen.*

*Esmeralda bezain berdea zen eta adar batean zegoen.*

*Harra irensteko zorian zegoela...*

*-Ez nazazu jan. Har bat naiz.*

*Oso baliotsua naiz: gauzak neurtzen ditut...*

"Arrarik arra", 1960koa, Leo Lionniren klasiko bat da, hauxe izan baitzen haren lehen ipuina. Har zuhur bat du protagonista, ederki moldatzen dena hainbat hegaztik irentsia ez izateko. Haren abenturak hasten dira bere isatsa zenbat neurtzen duen jakin-minez dagoen txantxangorri batekin. Bide horretatik, intsektu burutsua joango da neurtzen flamenkoaren lepoa, tukanaren mokoa, eta istorioan agertuko diren beste hegazti batzuen anatomiako atal bitxiak. Harik eta, berriz ere irentsia izateko arriskuan dagoela, hartxoak etekin ederra aterako dio bere adimenari eta irudimenari onik ateratzeko ataka berritik, irakurleak harrিতuko dituen modu batez.

Liburu hau, Leo Lionnik bere ibilbidean zehar jasotako lau Caldecott dominatariko lehena merezi izan zuena, materialaren eta ukiezinaren, neurgarriaren eta neurtezinaren arteko dikotomia planteatzeagatik nabarmentzen da.

*"Ikaskizun agerikorik ez daukan arren, esanahiak bilatzeko gonbita egiten du"*, adierazi zuen sakontasun sinboliko handiko testu soil elkarrizketatu honen egileak.

Natura, berde-tonu askotako flora, eta irudikatutako fauna koloretsua izan dira Leo Lionnik geroagoko liburuetan garatzen jarraitu zuen ezaugarriak. Orobat collage teknika –hondo zuriaren gainean nabarmendutako figurak tarteko- eta orrialde bakoitzaren konposizio orekatua izan ziren Lionniren identitate-ezaugarriak.

www. **Kalandraka** .com  
comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com  
etxea  
soltxate@pamiela.com



## Arrarik arra

Leo Lionni



- **Galak:** adimena, zuhertasuna eta e irudimena.
- **Gomendatutako adina:** 4 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** garai guztietako haur literaturako klasiko bat; natura, fauna eta flora; tamainak, neurriak; collage; honako hauen egile berarena: "[Alex eta sagu mekanikoa](#)", "[Frederick](#)", "[Urdir Txiki eta Hori Txiki](#)", "[Igeritz](#)", "[Matiasen ametsa](#)", "[Munduko etxerik handiena](#)", "[Números](#)" y "[Colores](#)".

### Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian dokuratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista gisako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimernak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabean sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiez egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdir Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40tik gorako obra gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.